Mañariko Udala

MAÑARIKO UDALEKU ZERBITZUA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK

Exp. B059-2026-00001.

Udalekuak adin txikikoentzako udako jarduera programa bat dira. Ekaina eta uztailean izango dira, astelehenetik ostiralera, eta eguneko 4-5 ordu iraungo dute. Hala ere, irteerak egiten diren egunetan, iraupena 7 ordukoa izango da.

Ordutegi honetan, adingabeek jarduera askotan parte hartuko dute: tailerrak, jolasak, ibilaldiak, kirolak... Irteerak ere egingo dituzte: hondartzara, igerilekura,…

Udalekuak enpresa espezializatu baten ardurapean daude. Begiraleak daude jarduerak koordinatzeko eta adingabeak gainbegiratzeko.

HELBURUAK

Mañariko udalekuen helburuak hauek dira:

- Aukera entretenigarria, hezigarria eta aberatsa ematea adingabeek udako oporrak pasa ditzaten.
- Elkarbizitzaren balioak sustatzea, hala nola adiskidetasuna eta laguntasuna, eta diskriminazio mota guztiak ezabatzea.
- Genero arteko estereotipoak haustearen alde egitea, eta berdintasuna sustatzea.
- Natura errespetatzen eta baloratzen ikastea.
- Adingabeak Mañariko eta inguruetako ohituretan eta kultura-ondarean sartzea.
- Adingabeen artean euskararen erabilera sustatzea.

HIZKUNTZA

Udalekuak euskaraz egingo dira.

EGUTEGIA

Astelehenetik ostiralera, ekainaren 22tik uztailaren 17ra (20 egun).

ORDUTEGIA

Udalekuen ordutegi orokorra honakoa izango da:

9.00 / 9.30 – 13.30 / 14.00

(sartzeko eta irtetzeko ordu erdiko tartea egongo da)

Hala ere, irteera egunetan, ordutegia hau izango da:

9.00 / 9.30 – 16.00

PLAZAK

Kontratu honetan jasotzen diren irizpide eta baldintzak, gehienez ere asteko 40 umeren partehartzea aurreikusita ezarri dira.

Beraz, lizitatzaileek 40 partehartzailerentzako plangintza eta aurrekontua aurkeztu beharko dituzte. Ibiltariko astean izan ezik, 12-17 urte arteko 10 haur gehiagok parte hartu ahal izango du eta; beraz, guztira 50 haur izango lirateke.

ADINA

Urte hauetan jaiotako adingabeek eman dezakete izena: 2009-2023 (biak barne).

Lizitatzaileen proposamenek adinaren araberako taldeak jaso beharko dituzte.

BEGIRALEAK

Gehienez ere, 40 umeren partehartzea aurreikusten den heinean, 4 begirale egon beharko dira. Hala ere, udaleku Ibiltariko astean begirale kopurua egokitu beharko da.

Lizitatzaileek, euren proposamenarekin batera, begiraleen curriculumak aurkeztu beharko dituzte.

LEKUAK

Udal eraikinak eskainiko dira udalekuak aurrera eraman ahal izateko. Haurrak herriko plazan batuko dira, eta eguardian leku berdinean jasoko dituzte guraso edo tutoreek.

EGITARAUA ETA JARDUERAK

Udalekuen egitaraua askotarikoa eta dinamikoa izango da; ekimen hauek sustatzera zuzenduta dago: aire zabaleko jarduerak, kirola, sormena, naturarekiko errespetua, euskal kultura, Mañaria eta ingurunearen ezagutza (geografia, tradizioak, ohiturak, gastronomia).

Programak gutxienez honako jarduera hauek barne hartuko ditu:

A) Egunero hainbat jardueraz osatutako programa: tailerrak, eskulanak, jolasak, kirolak…

Horrez gain, genero-berdintasunari eta bizikidetza/aniztasunari buruzko jarduera bana egin beharko da gutxienez.

B) Euskal kulturarekin zerikusia duen jarduera bat gutxienez: bertsolaritza, musika, sukaldaritza, ondarea, mitologia…

C) Mañaria eta ingurumena ezagutzea sustatzen duen jarduera bat, gutxienez. Adibidez: nekazaritza, etnografia, auzoetako edo mendiko ibilaldiak, herriko txoko esanguratsuenak ezagutzeko irteerak…

D) Durangoko igerilekura irteera: astean behin gutxienez. Irteeren ordutegia Durangoko igerilekuen zuzendaritzarekin adostu beharko dira.

E) Hondartzara irteera: gutxienez astean behin.

F) Udaleku ibiltaria: 4 gau zehaztutako ibilbidean: frontoi, aterpetxeetan (12-17 urte arteko haurrek).

Irteera edo txangoetako autobus gastuak eta lizitatzaileek proposatzen dituzten gainerako jarduerak egiteko sarrerak/tiketak ordaindu behar izanez gero, lizitatzaileen kontura izango dira.

GURASOEKIN KOMUNIKAZIOA

Udalekuetan gurasoekin komunikazioa izateko, bertaratzea eramateko, baimenak kudeatzeko, inkestak egiteko, programaketa bidaltzeko eta gurasoekin komunikatzeko aplikazio bat izatea. Aplikazio honek datu babesaren legea bete beharko du.

Mañarian, 2026ko otsailaren 20an.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁN EL SERVICIO DE COLONIAS DE VERANO EN EUSKERA DE MAÑARIA

Exp. B059-2026-00001.

Las colonias son un programa de actividades de verano para menores. Tendrán lugar en los meses de junio y julio, de lunes a viernes, y una duración de 4-5 horas diarias. No obstante, los días de excursión, la duración será de 7 horas.

En este horario, los menores participarán en pluralidad de actividades: talleres, juegos, paseos, deportes... También realizarán salidas o excursiones: a la playa, a la piscina…

Las colonias estarán a cargo de una empresa especializada y habrá monitores para coordinar las actividades y supervisar a los menores.

OBJETIVOS

Los objetivos de las colonias de verano de Mañaria son:

- Ofrecer una oportunidad entretenida, educativa y rica para que los menores pasen sus vacaciones de verano.
- Fomentar los valores de la convivencia, como la amistad y el compañerismo, y eliminar todo tipo de discriminación.
- Favorecer la ruptura de estereotipos de género y promover la igualdad de oportunidades.
- Aprender a respetar y valorar la naturaleza.
- Incorporación de los menores a las costumbres y al patrimonio cultural de Mañaria y sus alrededores.
- Fomentar el uso del euskera entre los menores.

IDIOMA

Las colonias son en euskera.

CALENDARIO

De lunes a viernes, del 22 de junio al 17 de julio (20 días).

HORARIOS

El horario general de las colonias será el siguiente (habrá un margen de media hora tanto a la entrada como a la salida):

9.00 / 9.30 – 13.30 / 14.00

No obstante, los días de excursión, el horario será el siguiente:

9.00 / 9.30 – 16.00

PLAZAS

Los requisitos y condiciones de este contrato se establecen con una previsión de participación máxima de 40 niños por semana.

Así pues, las/os licitadoras/es deberán presentar propuestas de planificación y presupuesto para 40 participantes. A excepción de la semana de Campamento Itinerante o Ibiltari, en la que podrán participar 10 niños y niñas más de edades de entre 12 a 17 años; siendo en total 50 niños y niñas.

EDAD

Podrán participar en las colonias los niños nacidos entre los años: 2009-2023 (ambos incluidos).

Las propuestas de los licitadores deberán incluir grupos por edades.

MONITORES

En la medida en que se prevé la participación de un máximo de 40 niños, las propuestas de los licitadoras/es, deberán incluir 4 monitoras/es (en la semana del campamento itinerante o ibiltari se deberá adecuar el número de monitores según el número de niños/as que se apunte).

Deberán acompañar a su propuesta los currículos de los monitores.

LUGARES

Se ofertarán edificios municipales para poder llevar a cabo las colonias. Los niños se reunirán todos en la plaza del pueblo, donde también tendrán que recibirlos los padres o tutores al mediodía.

PROGRAMA Y ACTIVIDADES

El programa de colonias será variado y dinámico; está dirigido a promover actividades al aire libre, deporte, creatividad, respeto a la naturaleza, cultura vasca, Mañaria y conocimiento del entorno (geografía, tradiciones, costumbres, gastronomía).

El programa incluirá al menos las siguientes actividades:

A) Programa de actividades diarias: talleres, manualidades, juegos, deportes…
   Además, deberá realizarse al menos una actividad sobre igualdad de género y otra sobre convivencia/diversidad.

B) Al menos una actividad relacionada con la cultura vasca: bertsolaritza, música, cocina, patrimonio, mitología…

C) Al menos una actividad que fomente el conocimiento de Mañaria y el medio ambiente. Por ejemplo: agricultura, etnografía, paseos por barrios o montaña, salidas para conocer los rincones más emblemáticos del pueblo…

D) Salidas a las piscinas de Durango: una salida semanal. El horario de las salidas deberán ser consensuados con la dirección de piscinas de Durango.

E) Salida a la playa: una salida semanal.

F) Campamento itinerante: un recorrido definido de 4 noches en frontones, en albergues… (para niños/as de 12-17 años).

Los gastos de autobús en salidas o excursiones, así como las entradas/tickets para realizar las actividades que propongan las empresas licitadoras, correrán a cargo de las mismas.

COMUNICACIÓN CON PADRES

Disponer de una aplicación de comunicación con padres y madres, asistencia, gestión de permisos, encuestas, envío de programación y comunicación con padres y madres en las colonias. Esta aplicación deberá cumplir la ley de protección de datos.

En Mañaria, a 20 de febrero de 2026.